

amutalde 22, 3º dcha. 20.280 hondambia - gipuzkoa
tel/fax: 943 64 56 52 hirusta@hirstarecords.com www.hirstarecords.com
HIRUSTA RECORDS es una marca registrada de ATERKI RECORDS S.L.



mikelerrazkin & HF: 10.0

1999. urte bukaeran hasi nintzen diska honetarako lehenengo abestiak sortzen. Konposaketa lanetan etenaldi bat baino gehiago egon bazen ere, beste produkzio, grabaketa etabar tartean zirelarik, geratzen zitzaizkidan tarte libreetan nire diskan lanean jarraitzen nuen. Ia 5 urtetan proiektu baten inguruko ikuspegia sarritan aldatzeko astia izaten da eta konposatu edo moldatutako 30 kantuek hartu eta 10 kantuko sailkapen zorrotz bat egin nuen.

Diskaren titulua 10.0 da. Zergatia? Hamargarren lan pertsonala da, Sorotan Beleren 3 diska eta zuzeneko bideoa, Aixa taldearen diska eta honekin, bakarkako nire 5 diskak kontutan harturik. Hain zuzen ere, diskaren edukia horixe da: abesti berri, soinu berri eta moldaketa ezberdinekin landutako lehenengo abesti batzuen inguruko itzuli bat. ".0" horrek modernitate ikutu bat ematen dio programa informatiko baten bertsioa bailitzan.

Hamar zenbakia inflexio-puntuaren seinale da nire ibilbidearen barruan. Oraingo honetan, behar adina denbora hartu dut benetan gustoko ditudan abestiak aukeratzeko eta ikuspegia aldatu dut: lehen, nire etsairik handiena denbora zen eta diska baten eta hurrengoaren argitalpenaren artean gehiegi igaro ez zedin saiatzen nintzen, baina lan bakoitza amaitutakoan, soilik onak bost edo sei kantu iruditzen zitzaizkidan; gainontzekoak aruntak ziren.

Diska honetan ez naiz gelditu kantu guztiekin konforme sentitu arte. Zeri dagokion lan egiteko moduan emandako aldaketa hau? Azkenean askatasun osoa eman diodala nere buruari, galtzekorik ezer ez daukadala eta batez ere, duela hamar urte lagun on batek esandakoari jaramon egin diodala: "jendeak independentzia eskatzen du eta nik aspaldidanik daukat". Nahiz eta independentzia horretaz gozatzea ez den beti gauza erraza izaten.

Aldaketa nabarmen bat dago baina betiko estiloa mantenduaz. Mikel Andueza bezalako jazz saxofojole bat izatea, Igor Telletxea bateriaren egonkortasuna, Txema Garcés baxua eta Xabi Lopez gitarekin, HF soinuaren oinarria direlarik. Bi abeslari ezezagun erabiltzearen berrikuntza: Ane Odriozola eta Oihana Lekuona eta soinu elektroniko, sample eta gainontzekoekin egindako esperimentazioa.

Beno, hauxe da dena. Gainontzekoa abestietan dago. Nik bezain gustokoa izatea espero dut.

Mikel.

Igor Telletxea: Bateria
Txema Garcés: Baxua
Mikel Andueza: Saxoa
Xabi Lopez: kitarak akustikoak eta elektrikoak
Ane Odriozola: Ahots nagusia eta koroak
Oihana Lekuona: Ahots nagusia eta koroak
mikelerrazkin: loop, sampler eta teklatuak

Musikal zuzendaria, moldaketak eta produkzioa: mikelerrazkin

Diska hau grabatu zen 2004-ko abuztu eta uria bitartean
HIRUSTA RECORDS estudioan.
Grabaketa eta nahasketaren teknikaria: mikelerrazkin
Fotografia: Sonia Samaniego
Diseinua eta maketazioa: MKL desings

mikelerrazkin